

# Itzurrun

Osteguna, 2011ko uztailaren 21a

Grosekoak Sidahmad gaztetxo sahararrari etxeko atea ireki dizkio udan II-III

**MAIDER SALABERRIA: «OSO HAUR IREKIAK DIRA»**



Sidahmad, parkean, Maider Salaberriarekin. OLAIA GIL SANCHEZ

**Xila Pihlstrom** Suomi euskalduna

«Finlandiarrekin alderatuta,  
euskaldunak oso irekiak dira»

Suomitar Kultur Elkarteko kideak 20 urte daramatza hirian; suomi-euskara-suomi hiztegia osatzen ari da

**Elkarrizketa** ◊ VII



OLAIA GIL SANCHEZ

nen artean, eta eurek jai txiki hori antolatzen zuten eta horretara gonbidatu ninduten. Hala ezagutu ginen, eta urtero elkartzen ginenean hiztegi bat egitearen beharraz hitz egiten genuen. Hori dela-eta, 2000 urtean Suomitar Kultur Elkarte sortu genuen. Bertan, batetik, Euskal Herrian bizi garen finlandiarrak gaude –euskaraz hobeto edo okerrago dakigunak– eta bestetik, finlandiarra dakiten euskaldunak.

«Egun, Donostia oso 'europeizatuta' dago, baina duela hogeitun urte ez zen horrela»

«Hiztegia Euskal Herriko eta Finlandiako liburategietan egotea nahi dugu»

**Urte dezente daramatzazue lanean.**

O.G.S.

Bai, egia esan, mantso goaz, guztiok elkartetik kanpo gure lana daukagulako. Baina, hala ere, hiztegia nahiko aurreratuta dago eta, sarrera guztiak egin ostean, zalantzan ditugun hitzak eztabaidatzea baino ez zaigu geratzen. Kontua da prozesu hori oso luzea dela, zeren eta ondo egin behar da eta guztiok ados jarri behar baikara –agian, hitz baikoitzarekin 25 minutu inguru egon gaitzake eztabaidatzen!–. Zorionez, gure artean badaude euskal filologoak eta suomitar filologoak, eta beraz, alde horretatik ez dago arazorik, baina hala eta guztiz ere lana da.

**Diru-laguntzarik baduzue?**

Ez dugu oraindik eskatu, gu lan hau boluntarioki egiten baitugu; gure umea da. Baina hiztegia inprimatu ahal izateko eskatuko dugu. Luze pentsatzen egon ginen; 'gaur egun merezi al du perezko hiztegi bat kaleratzea?' eta baietz erabaki dugu. Izan ere, guk suomi-euskara-suomi hiztegi bat egon dadin nahi dugu, bai Finlandiako eta baita Euskal Herriko liburategietan. Horrez gain, *on-line* ere eskuragarri egongo da, jakina.

**Noiz ikusiko du argia?**

2012ko Durango azokan aurkeztu nahiko genuke. Une honean, inoiz baino argiago ikusten dugu bukatze gaudela eta, hori dela-eta, laster diru-laguntzak eskatu beharko ditugu. Hemen eta Finlandian eskatuko ditugu, eta gu geu urteotan dirua biltzen izan garen arren, zeozer lortzea espero dugu, beharko baitugu.

**Nokiarako aplikazioak egiten dituen enpresa baten erosketa eskaintza ere jaso duzue.**

Bai, baina eskerrak eman eta, oraingoz, ukatu egin dugu. Pentsatu egin behar dugu. Izan ere, noraino iritsiko lirateke gure eskumenak? Ez genuke eskubiderik izango gure hiztegiaren?

●ogil@hitza.info

## Xila Pihlstrom ◊ Suomi euskalduna

Suomitar Elkarteak hamaika urte daramatza suomi-euskara-suomi hiztegiaren lanean; haren idazkariak Donostian 20 urte eman ditu eta hiriarekiko duen maitasunaz eta hiztegiaren nondik norakoez hitz egin du.

# «Etorri aurretik banekien hemen hizkuntza berezi bat zegoela»

**Olaia Gil Sanchez**

Suomitar elkarteko idazkaria da Xila Pihlstrom (Helsinki, 1962). Duela hogeitun urte lur hartu zuen Euskal Herrian, eta gure herri eta hizkuntzak liluratuta Donostia bere bizileku bihurtu du. Euskara ondo baino hobeto hitz egiten du, eta hamar urte daramatza Suomitar Elkartearen bertan, suomiera eta euskararen arteko loturak sendotzeko lan egiten dute, eta beren erronka nagusia datorren urtean kaleratuko duten suomi-euskara-suomi hiztegi ertain bat osatzea da.

**Nolatan etorri zinen Euskal Herriara?**

Egia esan, gaztelania ikastera etorri nintzen, hiru lagunekin batera –hemen oso ikastaro merkeak zeudelako–, baina etorri aurretik banekien hemen hizkuntza berezi bat zegoela: euskara. Gu punkyak ginen, etxeak okupatu genituen, bai Finlandian eta baita Suedian ere, eta gazte-teeetara joan ohi ginen musika entzuterara. Berehala hasi ginen hemengo okupak ezagutzen, eta gaur egun, horiek dira nire lagunak; nahiz eta beharbada, jada ez garen hain punkyak.

**Ikastaroa bukatu eta zure lagunak etxera itzuli zirenean, zergatik erabaki zenuen gurean geratzea?**

Besteek ez zuten interesik euskararekiko, baina nik geroz eta gehiago nuen. Euskal giroan mugitzen ginen, ezagutzen genuen jendea euskalduna zen eta, beraz, euskaraz hitz egiteko irrika gorantz zihoan. Mugikortasun bulegoan galdetu nuen, ea laguntzerik zuten, eta nik ingelesa ondo nekienez, bertan ordu gutxi batzuek lanean hastea eskaini zidaten. Horri esker geratu nintzen hemen. Izan ere, garai hartan Martuteneko etxe okupatu batean bizi nintzen arren, dirua behar nuen jateko eta, oro har, bizitzeko.

**Zerk erakartzen zizun euskal kulturatik? Zer zenuen gustukoak?**

Guztia Eskandinabiarekiko oso ezberdina zen. Gainera, gaur egun, Donostia oso *europeizatuta* dago, baina duela hogeitun urte ez zen horrela, lasaia zena. Arazo politikoa ere bazegoen eta horren nondik norakoak ulertzea oso interesgarria iruditzen zitzaidan; manifestazioak zeuden, pintadak kaleetan... Gaztetxeak, okupazioa etabar oso bizirik zeuden mugimenduak ziren, eta gi-

zaratearen partehartzea ere handia zen. Tabernetako giroa ere gustuko nuen, edota jaiak; bizitza kalean egiten baitzen, ez etxean. Frantzia, edo Iparraldean bertan, 20:00etan taberna guztiak itxita daude, eta Eskandinavian ere horrela da gutxi gorabehera.

**Ondo egokitu zinen, hortaz.**

Bai, hemen jendea oso jatorra da. Beti galdetzen didate 'ez zaizu iruditzen gu euskaldunak oso itxiak garela?' eta nik beti ezetz esaten diet. Inolaz ere, finlandiarrekin alderatuta, euskaldunak oso maitagarriak eta irekiak

dira. Finlandiarrak, oro har, serioak eta barnerakoiak dira; ni salbuespena naiz. Hemen jendea berehala hasten da hizketan. 'Zuek itxiak? ba joan Finlandiara eta ikusiko duzue!', erantzun ohi dut beti.

**Noiz jarri zenuen abian Suomitar Elkarteak?**

Kontua da ni telebistan atera nintzela, finlandiarra izanik, euskara nekielako. Mia eta Joseba senar-emazteek ikusi egin ninduten. Mia finlandiarra da, eta Joseba ere han bizi izan zen. Gabonen aurretik Finlandian *Gabon txikia* ospatzen da, lantokian edota lagu-

## Suomia nagusi da Finlandia herrialde elebidunean, 5.000.000 hiztunekin

➔ Suomi edo Finlandia ofizialki herrialde elebiduna da. Izan ere, suomi eta suediarra hizkuntza ofizialak dira. Suomi herria nahiko zapalduta izan zen iraganean, suediar eta errusiarrengatik. Egun, suediarrek utzitako arrastoak badiren arren, errusiar kulturaren eraginik ia ez dago. Suomian da hizkuntza nagusia, 5.000.000 inguru hiztunekin; suediera, berriz, biztanleriaren %5,5ak baino ez du erabiltzen. Batik bat, kostaldean erabiltzen dute, bertan tradizionalki negozioak izan dituztelako herrialde bizilagunarekin. Iparraldeko gainerako herrialdeetako – Islandia, Noruega, Suedia, Danimarka – hizkuntzak germanikoak dira; ez ordea, suomi.